

Askaria etxean

GAZTAINEKIN BATERA dator udazkena. Azken gehienetan bezala, gaua eguna baino, iluna argia baino luzeagoa den urte-sasoia bakarra. Zikloek agintzen duten bizimodua egiten dugu. Umetako oroitzapen eder bat badut horri lotua: neguan galtza luzeak eta udan galtza motzak erabiltzen genituen, hamabi urtera arte, orduan urte osoan luzeak janzteko baimena genuen, “handi” sentitzen ginen. Baina negua eta uda arteko muga ez zen garbia eta eguraldiak erabakitzen zuen... Ez ziren berehalakoan iritsi hamabi urteak!

Udazkenarekin askaria egitera etxeko babesera biltzeko garaia etorriko da. Giroak aginduko du hori ere. Landareetan bezala. Aldian aldiko eguraldiak aurreratu edo atzeratu dituzten landareen lanak ere, kimua noiz ernatu, lorea noiz ireki...

Honi lotutako istorio polit bat bada Nafarroa hegoaldean. Javier Irigarai Imaz ingeniariak (Iruñea, 1935), *Estado actual de la onomástica botánica en Navarra* lanean –*Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian zatika



JAVIER MARTÍN

Kitameriendasa (*Crocus nudiflorus*).

argitaratua—, herri mordo batean jaso zuen landare bati ematen zaion izen bitxi bat: *kitameriendas*. Lezaunen, Iruñelan, Deierriko Ibirikun, Olletan, Soltxagan eta Genben behintzat jaso zuen. *Pierdemeriendas* izena, berriz, Muniainen. *Crocus nudiflorus* da landare hori.

Nik jakin ahal izan dudan neurrian, aza-fraiarekin (*Crocus sativa*) duen antz izugarriagatik, beste hizkuntzetan hari lotutako izena du: *azafrán loco* (Esp.), *safrá bord* (Cat.), *safran á fleurs nues* (Fr.), *zafferano autunnale* (It.). Enrique Sánchez-Mongek kitameriendasi euskaraz “azafrasia zangarra” deitzen zaiola jaso du argitalpenen batetik; lastima da nondik hartua duen ez esatea. Galegoz eta portugesez soilik lotzen zaio askariari izena: *tollameriendas* edo *tollemeriendas*. Nafarroa erdialdea eta Atlantikoari muturra ematen dioten haien artean zer lotura ote dago?


Kitameriendasa iraila edo urria aldera loratzen da (“bertako lanak amaitu eta berehala loratzen da larrainean” diote Olletan). Lore ubela irekitakoan haurrei ez omen zitzaizen gehiago askaririk ematen. Ea umea, laster ilunbista da eta etxera!

Lezaunen *engañapastores* ere deitzen diote. Zergatik ote? ■



65 milioi

Uda honetan zabaldu du Eusko Jaurlaritzak: autonomia erkidegoko basoek 65 milioi tona karbono dioxido bilduak dituzte bere baitan. Azken hamabost urteetan bertako industriak eta garraioak isuritakoaren baliokidea da. Erkidegoaren %55 inguru basoa da: baso natural eta artifizial, txara... Espezieka, karbono saldo handiena pinudietan dago, baina hariztieki eta pagadiak hektareako kopuru handiagoari eusten diote. ■



JAVIER FERNÁNDEZ / BASKIMÁGEN